



EUROPAKO BATASUNA



EUROPAKO GIZARTE FONDOA

LANALDI OSOKO LAN-KONTRATU MUGAGABEA

KONTRATU-KODEA

- HOBARIAREKIN
 Enpresa orokorra
 Langile autonomoa
 HOBARIRIK GABE

1 5 0

1 0 0

ENPRESAREN DATUAK

IFK/IFZ/AIZ

JN./AND.		IFZ/AIZ	KARGUA: (1)
ENPRESAREN IZENA		ENPRESAREN HELBIDEA	
HERRIALDEA	UDALERRIA	POSTA-KOD.	

KOTIZAZIO-KONTUAREN DATUAK

ERREGIMENA	PROB. KOD.	ZENBAKIA	KONTROL-DIGITUA	JARDUERA EKONOMIKOA
------------	------------	----------	-----------------	---------------------

LANTOKIAREN DATUAK

HERRIALDEA	UDALERRIA
------------	-----------

LANGILEAREN DATUAK

JN./AND.		IFZ/AIZ	JAIOTEGUNA
G.S.KO AFILIAZIO-ZENBAKIA	IKASKETA-MAILA	NAZIONALITATEA	
BIZILEKUAREN UDALERRIA	BIZILEKUAREN HERRIALDEA		

Dagokionean, jaunaren/andreaken legezko laguntzaz, –..... du IFZ/AIZ–, izanik (2).

AITORTZEN DUTE

Lan-kontratu hau sinatzeko eskatzen diren baldintzak betetzen dituztela eta, ondorioz, gauzatzea erabaki dutela.

KLAUSULAK

LEHENENGOA: Langileak (3) gisa egingo du lan, talde/kategoria/maila profesionalan, enpresan indarrean dagoen sailkapen profesionalaren arabera, kokatutako lantokian.

BIGARRENA: Lanaldia osoa izango da, asteko ordukoa,(e)tatik(e)tara, legeak ezarritzen dituen atsedendiekin.

HIRUGARRENA: Kontratu honen iraupena MUGAGABEA izango da. Lan-harremana datan hasiko da eta (4) probaldia egongo da.

LAUGARRENA: Langileak (5) euro gordinen ordainsaria jasoko du, honako alokairu-kontzeptu hauetan banatuta (6):

BOSGARRENA: Urteko oporren iraupena (7) izango da.

SEIGARRENA: Kontratu hau txandakako kontratu gisa egingo da: BAI EZ
Erantzuna baiezkoa bada, eranskineko "Txandakako kontratua" bete behar da.

ZAZPIGARRENA: Abenduaren 27ko 2/2204 Legean (Berrogeita zazpigarren xedapen gehigarria) (abenduaren 28ko BOE) zehazten diren eskakizunak eta baldintzak betetzen badira, enpresak (8) hobari hauek izango ditu Gizarte Segurantzako kontingentzia arruntengatik enpresa-kuotetan. Enplegu-emailea langile autonomoa baldin bada eta aipatutako arauak ezartzen dituen eskakizunak ere betetzen baditu, hobari horiek 5 puntu handituko dira: (9)

- a) Hamasei urtetik berrogeita bost urtera bitarteko emakume langabeak kontratatzea: kontratua indarrean jarri eta ondorengo hogeita lau hilabeteetan % 25.
 - b) Gutxienez sei hilabetez Enplegu Bulegoan etenik gabe izena emanda egon diren edo berrogeita bost urte baino gehiago dituzten emakumeak 1998ko irailaren 16ko Ministerio Agindua ezarritako lanbide eta zereginetarako kontratatzea: kontratuak irauten duen lehen urtean % 70; kontratuak irauten duen bigarren urtean % 60. Aurreko baldintza gehigarrietako baten bat bete ezean, hobaria % 35ekoa izango da kontratua indarrean jarri eta ondorengo hogeita lau hilabeteetan.
 - c) Gutxienez 6 hilabetez Enplegu Bulegoan etenik gabe izena emanda egon diren langabeak kontratatzea: kontratua indarrean jarri eta ondorengo hogeita lau hilabeteetan % 20.
 - d) 45 urte baino gehiago eta 55 urte arte dituzten langabeak kontratatzea: kontratuak irauten duen lehen urtean % 50; kontratuak irauten duen gainerako urteetan % 45.
 - e) 55 urte baino gehiago eta 65 urte arte dituzten langabeak kontratatzea: kontratuak irauten duen lehen urtean % 55; kontratuak irauten duen gainerako urteetan % 50.
 - f) Langabeziagatik prestazioak edo diru-laguntzak jasotzen dituzten eta kontratatzeko garaian laguntza-urte bat edo gehiago geratzen zaien pertsonak kontratatzea: kontratuak irauten duen lehen urtean % 50; kontratuak irauten duen bigarren urtean % 45.
 - g.a) Gizarte Segurantzaren Nekazaritza Erregimen Berezian sartuta dauden langileen aldeko diru-laguntzak jasotzen dituzten langabeak kontratatzea: kontratuak irauten duen lehen urtean % 90; kontratuak irauten duen bigarren urtean % 85.
 - g.b) Laborantza-errenta jasotzen dutenak kontratatzea: % 90 kontratuaren lehenbiziko urtean; % 85 kontratuaren bigarren urtean.
 - h) Gizarteratzeko errenta aktiboa deituriko berariazko laguntza aurreikusten duen programan langabetuak kontratatzea: kontratua indarrean jarri eta hurrengo 24 hilabeteetan % 65; 45-55 urteko langilea bada, kontratuak irauten duen gainerako denboran % 45; edo 55-65 urteko langilea bada, kontratuak irauten duen gainerako denboran % 50.
 - i) Enplegu Bulegoan izena emanda dauden emakumeak erditze-dataren osteko 24 hilabeteetan kontratatzea: kontratua indarrean jarri eta ondorengo 12 hilabeteetan % 100.
- c), d), e), f) eta h) letretan aurreikusitako kontratazioak emakume langabeekin eta lanaldi osorako egiten direnean, kuoten hobariak 10 puntu handiagoak izango dira.

ZORTZIGARRENA: Kontratu honi uztailaren 9ko 12/2001 Legearen lehenengo Xedapen Gehigarria aplikatuko zaio: BAI EZ

Erantzuna baiezkoa bada, eta enplegu-emaileak eskakizunak betetzen baldin baditu eta aipatu Xedapenak zehaztutako baztertze-arrazoietatik batean ez baldin badago, adieraz ezazu langilea honako zein taldekoa den (9):

- 16-30 urteko gazteak, biak barne.
- 45 urtetik gorakoak.
- Emakume langabeak, emakume-enpleguaren indize txikia duten lanbide edo zereginetarako kontratatzen direnean.
- Lan-eskatzaille gisa gutxienez sei hilabete daramatzaten langabeak.
- Minusbaliatuak.

BEDERATZIGARRENA: Aurreko klausulan erantzuna baiezkoa izan bada, kontratua arrazoi objektiboengatik iraungitzen denean eta iraungipena bidegabetzat jotzen denean, Langileen Estatutuko 53.5. artikulua adierazten duen kalte-ordaina, lege-testu bereko 56. artikulua xedatzen dituen efektuei jarraituz, zerbitzu-urte bakoitzeko 33 alokairu-egunekoa izango da. Urte bat baino gutxiagoko iraupena duten aldietan hileko hainbanatuko da eta gehienez 24 hileroko izango dira.

HAMARGARRENA: Kontratu honetan aurreikusi ez denerako, indarrean dagoen aplikatu beharreko legerian jasotakoa bete behar da, eta, zehazki, martxoaren 24ko 1/1995 ED Legegileak (martxoaren 29ko BOE) onartutako Langileen Estatutuak –uztailaren 9ko 12/2001 Legea (uztailaren 10eko BOE)– eta abenduaren 27ko 2/2004 Legeak (Berrogeita zazpigarren xedapen gehigarria) (abenduaren 28ko BOE) xedatutakoa. Era berean, Hitzarmen Kolektiboan xedatutakoa ere aplikatuko zaio.

HAMAIKAGARRENA: Kontratu honen edukia(e)ko Enplegu Zerbitzu Publikoari jakinaraziko zaio, sinatu eta 10 eguneko epean (10).

KLAUSULA GEHIGARRIAK

Eta jasota gera dadin, honen hiru ale egin dira ondoren adierazitako tokian eta datan, eta alde interesatuek sinatu dituzte.

.....(e)n, 20.....(e)koaren(e)an

Langilea

Enpresaren ordezkaria

Dagokionean, adin txikikoaren legezko ordezkaria

(1) Zuzendaria, Kudeatzailea, etab.

(2) Aita, ama, tutorea edo bere kargua duen pertsona edo erakundea.

(3) Lanbidea adierazi.

(4) Martxoaren 24ko 1/1995 Errege Dekretu Legegileak (martxoaren 29ko BOE) onartutako Langileen Estatutuko Legearen Testu Bateratuko 14.1 artikulua xedatutakoa beti bete beharko da.

(5) Eguneko, asteko, hileko.

(6) Oinarrizko alokairua, alokairu-osagarriak, plusak.

(7) Gutxienezkoa: 30 egun natural.

(8) Halaber, bazkide langile gisa edo laneko bazkide gisa langabetuak hartzen dituzten kooperatiba edo lan-elkarteek hobariak eskura ditzakete, baldin eta erakundeak inoren konturako langileei dagokien Gizarte Segurantzako erregimen bat hautatu badu.

(9) Dagokion lekuan X jarri.

(10) DATUEN BABESA - Eredu honetan jasotako datuak abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren babesa izango dute (abenduaren 14ko BOE).